
ABIZENAK

ARTETA: Muxikan asi eta Mungialdetik Bizkai guztira zabaldu. (1543) Gipuzkoan be ba-dago eta Naparroan be bai batzuk.

Arte asko dagon lekua edo etxea esan gura dau.

ARTOLA: Amezketak eta Gipuzkoa osoan dago eta Bilbao'n be bai. (1655)

"-ola" atzizkiak ugaritasuna adierazten dau eta abizen onek arte asko dagon tokia edo ondoan dagon etxea esan nai dai. Onen antzera urkiola, egurrola, uriola...

ARZA: Lazkaon sortua da baiña Aiala-aldean be ba-dago. (1600)

Itza "arri" dala, atzizkia "-tza" da eta onek ugaritasuna esan nai dau. Orrelan "Artza" arri asko dagon lekua da. Ba-diño batzuk artza pizti bat dala be. Bear ba-da piztia izan daiteke Aialako "artzá" eta besteak "ártza", arritegia.

ARRAZOLA: Gipuzkoaren ondoan dagon Bizkai'ko erri bat da eta "-ola" ugaritasuna izanik, "arraz" arrilekua izan leiteke. (1340)

ARETXAGA: Lenengo Etxano'n agertzen da baiña gero zabal dabil Euskalerrian. (1399)

Aretxa dagoan tokia edo etxea esan gura dau eta "-aga" ez da besterik mugatzailea sendotzeko baiño.

ARRIAGA: Erronkarin agertzen da eta Bizkaian eta Gipuzkoan zabal dago. (1581)

Arria dagoan tokia esan gura dau.

ARRIEN: Errigoititik urtena da. (1768)

Asierako "arri" zer dan argi dago baiña ez ain argi "-en" zer dan: batzuk sasia dala diño baiña beste batzuk "noren" atzizkia dala. Ni lenengoaren alde nago.

ARRIETA: Berba onen esan-naia argi dago. Erri bat da Bizkaian eta bete eskualde batzuitan be bai. (1548)

Arri asko dagon tokia da.

ARRILLAGA: Abalzisketan asi eta Gipuzkoa osoan agiri da. (1619)

Arri biribillak dagozan lekua esan nai dau.

ARRINDA: Etxanon sortua ei da baiña beste leku askotan agiri da.

"Arri" zer dan argi dago. "-in-" sasia dala diño eta "-da" tokia adierazteko.

ARRIOLA: Debatik Bizkairantza zabaldu da. (Elorrio-1576)

"Arri" beti lez argi dago eta "-ola" atzizki lez agertzen danean ugaritasuna adierazteko da.

ARRIZABALAGA: Azpeitian eta Ataunen dagoz abizen au daukenak. (Eibar-1565)

Berbeak argi dauka esanaia: "-aga" tokia eta "arri" "zabala". Toki orretan dagoan etxea izan leiteke.

ARROITA (Arroeta): "Arro" mendi-muñoa da, "-eta" mendi askoren bitartea.

Berrizko Murgoitia auzotik zabaldua ei da. (Bergara-1650)

ARROLA: Mungian dagoz asko, baiña gipuzkoatik etorria da, artzaiñakaz-edo.

"-ola" ugaritasuna da eta "arri" ezaguna da. Urola ura ugari edo egurrola egurra ugari dan lez, arrola arria ugari da. Ez da burdin-ola. (Legazpia-1533)

ARROSPIDE: Busturin eta Benabarran agertzen da. (1658)

"-arro" emen sasia ei da, "-os-" tokia eta "-bide" ezaguna da. "Sasi asko dagon tokira bidea".

ARROIABE: Arratzutik asi eta Bizkai guztira zabaldu da.

"Arro-" mendi-muñoa izan ezkerro, mendiartearen barreneko tokia litzateke, baiña "arro" sasia ba'da, sasitzaren barrena" izango litzake.

ARRUE: Gipuzkoatik Bizkaira etorria da. (1399)

Batzuk "arriune" dala diño baiña ziurrago "arroa", "arrua", "arrue". Mendi-muñoa.

ARRUPE: Mungian dago eta Gipuzkoan.

Arruaren edo mendi-muñoaren barrena esan gura dau.

Olazar'tar Martin